

HEZIKETARI BURUZKO JARDUNALDIAK

HEZTEN IKASTEN

Otsailaren 12tik 28ra heziketari buruzko jardunaldi batzuk izango dira **Tomasene eta Larratxo Kultur Etxeetan**.

Nabarmentzekoak hilaren 12an **David Alvear** psikologoak, 18an **Eva Millet** kazetariak eta apirilaren 30ean **Amelia Barquin** unibertsitateko irakasleak emango dituzten hitzaldiak.

Arrazoi pertsonalak direla medio, Amelia Barquinen hitzaldia otsailaren 27tik apirilaren 30era atzeratu da.

Hauxe da prestatutako programazioa:

Otsailak 12
**PSICOLOGÍA POSITIVA CONTEMPLATIVA EN
EL ÁMBITO EDUCATIVO**
DAVID ALVEAR (PSIKOLOGOAK)

Hitzaldia

Hitzaldi honen helburua da hezkuntzaren arloko ongizatea areagotzeko meditazioaren eta beste kontenplazio-praktika batzuen eraginkortasunari buruzko azken aurrerapen zientifikoak iragartzea. Erabiltzaileen ezagutzara egokitutako hausnarketen eta bestelako estrategien adibideak jarriko dira.

David Alvear: Mindfulness-en espezializatutako Psikologiako doktorea, Baraka Institutuko partaidea eta UPV-EHUko Psikologia eta Hezkuntza saileko irakaslea.

Tomasene K.E. **17:30** gaztelania

Otsailak 18
CONSECUENCIAS DE LA SOBREPOTECCIÓN
EVA MILLET (KAZETARIA)

Hitzaldia

Bartzelonako Eva Millet kazetari eta idazleak, "**Hiperpaternidad**" eta "**Hiperniños**" idatzi dituenak, fenomeno horren zergatiak azalduko dizkigu, eta betiko joerak eraldatzeko pistak emango dizkigu. Seme-alabek jolasteko tartea izan dezaten -eta, zergatik ez?, aspertzeko ere bai-

Tomasene K.E. **17:30** gaztelania

Otsailak 22
HANSEL ETA GRETTEL
BOROBIL

Haur antzerkia

Juan Mari sukaldaria da eta bi seme-alaba ditu: Hansel eta Gretel. Bere jatetxea oso arrakastatsua da mundu osoko errezeta liburua desagertzen diren arte. Anai-arrebak abentura ikaragarri batean murgilduko dira... Grimm anaien klasikoaren bertsio dibertigarria.

Larratxo K.E. **18:00** 3 € euskara

Otsailak 24 – Martxoak 14

ESKOLA BIDEA

Erakusketa

Erakusketa honek 10 fotokazetariren lanak eskaintzen ditu. Bertan, mundu osoko haur askorentzat egunero eskolara iristeak dakartzan erroka larriak deskribatzen dira: mendiak, basamortuak, ibaiak, ur izoztuak, gatazka armatuak dauden lekuak edo auzo arriskutsuak zeharkatu behar dituzte, hezkuntzaren bitartez bizitza hobea lortuko duten uste sendoarekin. Mundu osoko haurren itxaropenei eta oztopoak gainditzeko gogoei buruzko istorio errealak dira egunero eskolara iristeko egin behar duten ibilbidean oinarrituak.

Tomasene K.E. 10:14 16:00-20:00

Apirilak 30
**HEZKUNTZA, KULTURARTEKOTASUNA ETA
GENEROA. GAURKO ERRONKAK**
AMELIA BARQUIN (UNBERTSITATEKO IRAKASLEA)

Hitzaldia

Aniztasunaren aroan, horren kudeaketa erroka da gizartean eta eskolan. Generoarekin lotutako alderdiek, besteak beste, eztabaida sortzen dute maiz. Hezkuntza arloan, elkarbizitzari, zailtasunei, aukerei...helduko die hitzaldian.

Tomasene K.E. **17:30** euskara

Otsailak 28
IRRATI-ANTZERKIA

Eskola eta institutuko gazteekin literaturan oinarritako irrati antzerkia landuko da.

Zuzendaria: **Inko Martín**

Tomasene K. E. **17:30** euskara

Oharra: Tomasene eta Larratxo liburategietako fondoan irakurketa-gida bat egongo da gai honen inguruan.

ANTOLATZAILEAK: [HARRI BERRI-OLETA](#), [HERRERA ETA ALTZA IKASTETXEAK](#), [ALTZA BHI](#), [DK IRRATIA](#), [UDALEKO MUGIKORTASUN](#)

CASARES-TOMASENE ETA LARRATXO KULTUR ETXEAK

Altza - Darieta bidea, 6 - 20017 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 351 149 F. 943 354 046 E. casareskulturetxea@donostia.eus

www.donostiakultura.eus/altza



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



www.donostiakultura.eus

SAILA ETA eta DONOSTIA KULTURA

CASARES-TOMASENE ETA LARRATXO KULTUR ETXEAK

Altza - Darieta bidea, 6 - 20017 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 351 149 F. 943 354 046 E. casareskulturetxea@donostia.eus

www.donostiakultura.eus/altza